



Soraluzeko Hamabostekaria

piipilean

43. alea 2002ko otsailaren 15a

Gure Argentina Uste baino hurbilago

Edurne Unamuno Espainako Eski Txapeldun Leridan



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**

GOL

GOL, S.A. Industriak

Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 SORALUZE

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>

Pil bazkide txokoa

BAZKIDE ZOZKETA

BI LAGUN Pil Pileanekin
sagardotegira



Aurreko zozketako irabazlea:
Unai Larreategi (Lagun Izoztua)

Bazkidiekin berbetan



**Ramiro Larrañaga
(Idazlea)**

Zer eskeintzen dotsa Pil Pilean aldizkarixak kanpuan bizi danari?

Kanpuan bizi garanok beti gare prest herriko notiziak jasotzeko. Guretako oso politta da herriko berri jasotzia.

Hamabostian behin etaratzia zer pentzatzen jatzu?

Hori zeuen gorabeheran dao. Guretako hobe, zeuendako lan larregi ez bada, aurrera.

Zegaitik laguntzen doskuzu hainbeste?

Herrikua naizelako, Plaentxia asko maitte dotelako eta sustarrak hor dauzkatelako.

Gauza bat daka ona Pil Pileanek, nik behintzat hori ikusten dotsat. Jente asko batzen dozue eta neri ilusifua egiten dotsa, herrira kanpotik etorritako jentia hor ikustia. Herrixa batu egin bihar da, politikian gaintetik batu egin bihar gara danok. Hortan segi, jentia elkartzen.



Botellonak

BOSCO GARCIA (VALLADOLIDARRAK SEVILLATIK)

Sevillan bueltan nago Gipuzkoan lau aste pasa ondoren, eta ia ahaztu zitzaizdan zein desberdina den hau. Larunbat gauean ateratu nintzen erari (batuan edari) batzuk hartzera beti bezela (batuan bezela) eta "botellona" batzuk topatu nituen (batuan nituen). Ezinezkoa da botellona bat ez topatzea, hiri osoan daude. Neguan, adibidez, hamar mila persona bilduta aurkitu ditzakezu Salvador plaza iguruetan. Gazte guztiak botellona kit-ak erosten dituzte eta txintxo txintxo botellona tokietara juten dira, prozesio batean bezela ("Botellonetako Gure Andramari Prozesioa" esaten det).

Baina Sevillako botellonetako desberdintasun haundiena ez da zenbat gazte biltzen diren edo zer eraten duten, ez. Desberdintasun haundiena da nola jazten diren botellonara juten direnean. Beste tokietan botellonetan ikusten denak ez du pijoa ematen, pixkat "borrokazalea" baizik. Sevillan berriz, eskontza batera juten direla ematen dute botellonako gazteek: Arropa beti berria eta ondo plantxatuta. Zapatak ere berriak, ondo garbituak, eta modan .

Ba hori da gauza bat Sevillakoa ez denari atenzio asko deitzen diona: itxura oso importantea da Sevillan. Euskal Herrian, Goierriko empresari batek eta bere langileek berdin xamarrak ematen dute. Euskal Herrian, jendeak ez du dakana erakusten . Sevillan, ordea, jende guztiak ez dakana erakusten du. Hori lagun Sevillar batek esplikatu zidan aldi batean. Gutxi gora behera, horrela esan zun: neri begira 'zazu; nik daramatzat Burberry's prakak, Lacoste "arkandora" bat, Castellano zapatak eta abar. Baina orkatiletatik heltzen ba nauzu eta buruz behera ipintzen ba nauzu, eroriko dira "seihsientah coshina pessetah, que eh to lo que llevo enssima". Horrela da.

Itxurakeriak aparte, Sevillarren dantzak, abestiak eta umorea asko maite ditut, eta uste det beraiengandik asko ikasi behar detela.

Telegrapak

Pil Pilean beti dabil pil pilian, bakailaua moduan. STOP. Euskadiko Laguntza "Txarren" Taldea (aurreko aleko okerra). STOP. Gu bai garala txarrak. STOP. Haize berrak mendigainian. STOP. Karakaten ez dabe eolikorik jarriko. STOP. Martxuan Hernanin Pil Pileanen Txotxi-Jaixa, Bergarakuekin gainera. STOP. Aukera berri bat neska zar eta mutil zarrendako. STOP. Ikastolako frontoiko argizatziarekin, itsuak be ikusiko leukie gabez. STOP. hori da argittasuna hori! gabe guztian gainera. STOP. "Kentzen, kentzen, kartel-kentzailiak gure kartelak". STOP. "esta muy mal esaten dabe jartzailiak". STOP. garbitasuna ona da baina garbizalekerixia ez. STOP. Abade homosexualaren kontu horrek hautsak harrotu dittu. STOP. eta oindio harrotuko dittuak. STOP. hauts gehixegi gauza onerako. STOP. Gure editorialak be hautsak harrotu zittuan. STOP. esaten dabe Eibartarrak "hautserrixa da Plaentxia, hautserrixa". STOP. Datorren urteko "Operazion Triunfo"ko kastingera Plaentxiar bat aurkeztu ei da. STOP. bere abizena, a-z hasi eta a-z amaitzen da. STOP. aaaa!. STOP. Muxu bat eta datorren alerarte. STOP. Formalak izan eta euskeraz egin!. STOP.



Argitaratzailea:

Pil Pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefona 943 75 13 04

Zuzendaria: Gurutze Ariznabarreta

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Jon Oregi eta Jon Basauri (943751304 tel.)

Banaketa: Pil Pilean **Ekoipezna:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop. **Azala:** Aitor Madrid
Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid **I.Z.K.-a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZEKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



Non zer?

Atarixa.....	3
Zerbitzuak.....	4
Iritzia.....	5
Zer berri?.....	6
Erreportaia.....	8 / 9 / 10
Kutura.....	11
Kirola.....	12
Argazki Albuna.....	13
Kontuak kontu.....	14

Erreportaia: Argentinako krisia protagonisten ahotik.

Zorion agurrak



Estela Moreno
Zorionak politta!
Zure alaittasunak
pozten gaittu.
Etxekuak.



Izaskun Gartzia
Hello baby, how are
you? One kiss.
Zorionak!!!
Pil Pileanekuak



Zalua Azpeitia
Zorionak Bittori!!
Juan zinan ba
Bitorixara, Gabolatz
triste-triste lagata?
Zure lagunak.

Aitor Madrid
Hau da San Balentin
eguneko zure oparia.
Zorionak!
Mac Cintos-en par-
tez.

Mari Tere Arizaga
Ixa 100 urte hanka
bakoitzian.
Etxekuaren partez.

Pil Pileanek zorion agurretako argazkiren bat edo lehiaketako sariren bat (liburuak) eman behar badizu Iratxo goxo dendan jaso ditzakezu.

hildakuak

jaiotakuak

Agenda

Otsailaren 18tik 22ra

Martxa Nazionala Bruselara
Izen ematea Arranoan.
SEGI

Martxoaren 8an

Sagardotegira Irteera Pil
Pilean eta Bergarako Jardun
Elkarteekin.(Begiratu 13.
orrialdean)

Martxoaren 1, 2 eta 3an

Borroka astea.
SEGI

guardiako farmaziak

ELGOIBARKO
ANBULATEGIRA DEITU
943 03 26 10 eta 943 03 25 00

udala

LIBURUTEGIA
17:00etatik 21:00etara
BULEGO ORDUTEGIAK
8:00etatik 15:00etara
Zapatuetan 9:00etatik 13:00etara

mezen ordutegia

ASTEGUNETAN:
Arratsaldeko 19:00tan (elebiduna)

SAPATUETAN:
Arratsaldeko 19:00tan (euskeraz)

DOMEKA ETA JAI EGUNETAN:
Goizeko 9:00tan (gaztelaniaz),
11:00tan (umeentzat euskeraz) eta
12:30tan (elebiduna)

Gutunak

Terrorismoa zuena....faxistak!

Garzon epaile faxistak Segi eta As-
katasuna erakundeen jarduera legez kan-
po utzi du. Presoen eskubideen alde lan
egiteagatik, edota euskaldunok egunerok
eta bortizki jasaten dugun errepresioa
salatzeagatik?Gazteon arazo eta eskubi-
deak borrokatzeagatik edota Euskal He-
rriaren nazio askapenerako bidean lan
egiteagatik?

Kartel bat jartzeagatik atxilotu eta
torturatzen gaituzte, antolatzea debekat-
zen digute, manifestazio batetan parte
hartzeagatik kondenatzen gaituzte...hau
al da demokrazia? Hau al da beraien ba-
kea?

Salatu beharra daukagu azkenaldi lu-
zean Euskal Herriak eta bereziki euskal
gazteriak estatu inposatzaileengandik ja-
saten duen erasoaldi bortitza. Salatu ere,

PP eta PSOE-ren jarrera faxista, beraien
politika Euskal Herriaren ukazioan oina-
rritzen delako, gure aurka mota guztietako
indarkeria erabiltzen dutelarik. Ko-
munikabide espainiarren jarrera erabat
lotsagarria da, informazioa ezkutatu, as-
matu edota manipulatu besterik ez dute
egiten.

Estrategia errepresioa salatzeo eta
Euskal Herriaren aldeko borrokan jar-
raitzeko asmoa azalduz, Segik hainbat
mobilizazio jarri zituen martxan pasa
den astean, gogorrena Segi-ko kideen
Gose Greba Mugagabea. Soraluzen os-
tegunero konzentrazioak egingo ditugu,
19:30etan Plaza Berrian. Martxoak 1,2
eta 3an Bruselara Martxa Nazionala
egingo dugu eta gainontzeko mobiliza-
zioen berri kartelen bidez emango dugu.

Gazte, Euskal Herriak behar gaitu!
Antolatu eta borrokatu! Euskal Herria

aurrera! Euskal gazteria aurrera!Ez gai-
tuzte geldituko!


Soraluzeko Segi

Ohartxo bat:

Gutunen bat argitaratu nahi baduzu,bota
Udaletxe azpian daukagun buzoira.
Ahalegindu gutun motzak idazten, beste-
dako tokia izan dadin. Eskerrikasko.

Javier Alonso Zelaieta

Hortz klinika



Mediku estomatologoa
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma
Tfnoa 943 75 16 13

Lonbide
taberna

Pintxoak
Ardoak, kafeak eta likoreak

Errabal kalea, 9
Tfnoa 943 75 14 07



Zer irizten dotsazu?**Zer iruditzen zaizu apaiz batek bere homosexualitatea eta zelibato-haustea publikoki onartzea?**


Jose Luis Perez
42 urte Langilea

Ondo pentzatzen jata pertsona guztiak errespetau ein bihar dia ta. Eliziak berak esandakuari baino gehixago begiratu biharko lotsake bere lana ondo betetzen daben.



Emilita Altuna
72 urte Jubilatua

Gaizki iruditzen jata, ez homosexuala dalako baina bai publiko esan dabelako. Elizan sartzerajuan berak bazekixan zelibatua gorde bihar zebala eta eliziak zer pentzatzen zeban homosexualitatiari buruz.



Argoitz Ariznabarreta
14 urte Ikaslia

Ondo iruditzen jata, berak esan egin bihar dau dana, eta ez da ezkututzen ibili bihar gainera apaiz izaten jarraitxu biharko leukiala pentzatzen dot.



Ainhoa Martxueta
30 urte Estetizista

Oso ondo pentzatzen jata.., bakoitzak ikusi bihar dau zer egitten daben. Eliziak hartu daben erabakixan inguruan ez dakit asko baina botatzen badabe, homosexuala izatiagaittik izango dala uste dot.



Antonio Olla
43 urte Langilia

Oso ondo iruditzen jata, horrelako kasu gehixao ataratzia komeniko litzake, baitta eliza barruan be.



Nekane Jauregi
15 urte Ikaslia

Oso ondo pentzatzen jata, bere erabakixa hori bada, errespetau ein bihar da. Elizian jarrera ez jata egokixa iruditzen.

Ugaitz Catalan eta
Enara Agirre

ITUR iturgintza

**Iturgintza, Gasa
Berogailuak
Sukaldeak eta Bañuak**



Santa Ana, 20 Behea
Tlfonoa: 943 75 12 41
Sakeleko tlfonoa: 639 17 96 96

**MENDIZABAL**

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Ballegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

Ekainean hasiko dira Herri Ikastetxea eraberritzeko lanak



Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Udalarari eta Ikastetxeko Zuzendaritzari adierazitakoaren arabera, aurtengo ekainean hasiko dira Plaentxi Herri Ikastetxeko eraberritze lanak. Guztira 170 milioi inguruko aurrekontua izango dute eta zentrua eraberritu eta Haur Hezkuntzako (ikastola zaharrean daudenak) eta Lehen Hezkuntzako umeak bertan batzeko egokitzapenak egitea izango dute helburu. Lanek urtebeteko iraupena izango omen dute, "gutxienez" eta lanek irauten duten denbora horretan, ikastetxea hustu eta beste lekuren baten

eman beharko dira eskolak. Ikastetxeko zuzendaritza, udala eta Hezkuntza Saileko ordezkariak dagoeneko hasi dira urtebete horretan eskolak emateko leku egokia izan daitekeenaren bila. Mertxe Epelde Herri Ikastetxeko zuzendariaren esanetan, "eskolak emoteko leku egoki bat aurkitzen ahaleginduko gara herrian bertan. Ez da erreza, beheko zentruak beteta dare eta beste lokalen bat aurkitu biharko dogu". Herrian leku egokirik aurkitu ezean, inguruko herriren bateko zentzoren batera joatea izango da aukera bakarra.

Emakumeen lapidazioaren kontra

Soraluzeko gazte talde batek sinadura biltzen jardun du, harrika hiltzera kondenatu duten emakume Nigeriar baten alde. Gazteek azaldu zigutenez "Nigerian, alde musulmanian, badago lege bat emakumeak harrika hiltzera kondenatzen ditutana". Harrika hiltzera kondenatu duten emakume Nigeriar honen kasua, ez omen da bakarria, "juazan urtian berrehun emakume hil zittuzten lapidatuta". Emakume honen kasua "bildurtzeko modukua da. Emakume hau hiru aldiz dibortziatu da. Oindala bi urte inguru, bortxatu eta haundun laga zeben. Umia ezkondu barik euki dabe-



lako, adulterioz akusatu dabe eta lapidatuta hiltzera kondenatu". Europar Batasunetik egindako presioen ondorioz, bigarren epaiketa bat egingo diote aurten.

Gazte hauen helburua, ahalik eta sinadura gehien batu eta Nigeriar agintariei lapidazioaren kontrako jarraera erakustea da. Sinadurak batutakoan, alkateak Nigeriako presidenteari helaraziko dio lapidazioaren aurkako eritzia Soraluzeko herriaren izenean. Bestalde, Nigeriako presidenteari lapidazioaren aurkako eritzia azaldu nahi dionak, badauka nora bidali: president.abasanja@nigeriagov.org helbidera.

Udal kontu

Etxe aurrealdeak eta teilatuak konpontzeko laguntzak



Soraluzeko Udalak Izartu programaren bitartez 57.906 Euro erabiliko ditu 2002, 2003, 2004 eta 2005 urteetako bakoitzean hala itzuli beharrik ez dagoen dirulaguntzetarako, nola obra, eraikuntza eta instalazioaren gaineko Udal Zergaren %90 a itzultzeko.

Hiru kasu hauetan laguntzak egon ahalko liritezke:

-Akaberako elementuak konpondu, berritu edo aldatzea, rebokoa eta pintura kasu.

-Arotz-lanak, balkoiak, behatokiak, irtenguneak eta erlaitzak aldatzeko. Baina elementu guztiak aldatu behar dira eta lehendik daudenen antzeko materialak eta disenua erabiliko dira.

-Teilatuetak berrikuntzetan. Baina gapirioen aldaketak eta errefortzu estruktural puntualak agertzen badira, beharrezkoa izango da Teknikari esku-dunaren parte hartzea.

Ondorengo baldintzak bakarrik betetzen dituzten eraikinetan laguntzak edukiko ditu:

1. Azalera erabilgarri guztiaren 2/3ak gutxienez etxebizitza izatea.
2. 10 urtetik gorako antzintasuna edukitzea.
3. Udal lizentzia lortzeko inolako mugarik ez izatea.
4. Fatxadako elementuen (lehio, balkoi, itxitura, galdara, antena.....) tratamendu unitario bat edukitzea.
5. Hondamendi-egoeran ez egotea.

Eduardo Pombar

Gure Argentina uste baino hurbilago

Argentinak bizi duen krisiaren arira, itsasoaren bestaldean bizi diren Soralezarren eta hemen bizi diren Argentinak batzuen egoera ezagutu nahi izan dugu. Noiz joan eta etorri ziren, orain zein egoeretan dauden eta Argentinak bizi duen krisiaren inguruan zein eritzi duten kontatu digite.

Hilabete batzuk pasatu dira Argentinako egoera hemengo komunikabideen titular izaten hasi zenetik. Gobernu aldaketak, Buenos Aireseko kaleetako manifestazio eta liskarrak, pesoaren devaluazioak, “korrallitoa” eta beste hamaika gertakizunek azaleratu dute Argentinak bizi duen egoeraren larritasuna zenbaiterainokoa den. Azken mende honetan munduko herrialderik aberatsenetakoa izan den Argentina, krisi latz batean murgildu da azken urteotan.

Krisi honek Argentina aldera begira jarri gaitu euskaldun asko eta Euskal Herrira begira Argentinak gehiago. Argentinan 5.000.000 euskal-argentinak inguru bizi direla esaten da, Euskal Herriaren gaur egungo biztanlegoaren bikoitza. Kopuru ikusgarri horrek adierazten du badela Gure Argentina bat, Argentina eta Euskal Herria estuki senidetzen dituen.

Badakigu Soralezetik Argentinara joandako pertsonen kopurua ere oso altua dela. Soralezeko etxe eta familia gehienetan, ezaguna da Argentinara joandako senitartekoren baten kasua. Denboraren joanari eta urruntasunari aurre eginez, hartueman estua mantentzen dute batzuek, beste batzuek harremana galdu eta loturak ahaztu dituzte. Guk, guzti horren berri gogorazazi nahi izan dugu, hemen-dik hara eta handik hona etorritakoen



Javier eta Maria Rosa euren alaba eta Alicia ahiztarekin.

“Euskal Herritik juandako jentia konturatu da, bizitza oso bat lanian pasatu eta orain ez daukatela ezer”

hitzek, errealitateari ikuspegi sakonago eta zabalago batetik begiratzen lagundu diguten esperantzarekin.

Hamaika Urte Soraluzen

Javier Mestre oraindela 11 urte etorri zen Soraluzera, eta urtebete beranduago etorri ziren Maria Rosa emaztea eta Daniela, alaba (Ainhoa hemen jaiotakoa da). Orain gertatzen ari den “egoera beretsuak” bultzatu zituen Argentina uztera, . Argentinan Buenos Aires probint-

zian bizi ziren, Quilmes hirian. “Javierren senitartekua, hemen bizi izaten lagunduko zoskuela esan zoskuen eta etortzeko erabakia hartu genduan”. Soraluzera etorri zirenetik ez dira berriz Argentinan izan.

Maria Rosa ustez, “egoriak oinguan erdi mailako klase sozialak ikutu dittu; enpresa txikixak. Aurreztuta zeukana kendu dotsenian, jentia babes barik sentittu da. Hango euskaldunak konturatu dira bizitza guztia lanian pasatu eta orain ez daukela ezer eta horregaitik nahi dabe oiñ berriz honuntz bueltatzia”.

Aliziaren (Maria Rosa ahizpa) uste-tan, argi dago zergatik dagoen Argentina mundu guztiaren ahotan; “jentia den dirua

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Lakuesta

Optika 

Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59



ikutu dabe eta munduak ezin dau sinistu Argentina moduko herri aberats eta dana daukan baten, horrelakorik gertatu leikenik.”

Momentu honetan % 17 inguruko langabezi tasa omen dago Argentinan, enpresak ixten ari omen dira. Aliziak diozkunez, ezinezko izango da arazoa epe motzera konpontzea; “belaunaldixak pasatuko dira jentiak berriz dirua bankura eruan orduko. Argentina oso borrontatsua da, Gobernu guztiak sartzen dira diru bila eta denek eramaten dute zer bait”.

Maria Rosaren ahizpa Soralezera etorri denean “egoeria larrixa izan arren, senitartekuak bizi izateko beste badauke”la jakinarazi die eta orain lasaiago daude.

Soraluzetarrek egoerarekiko agertzen dieten ardurak asko kontsolatzen ditu eta elkarrizketa honen bitartez, bihotz bihotzez eskerrak eman nahi dizkiete Soralezetar guztiei.

Buenos Airestik Soralezera

Francisco Javier Tello eta Yolanda Beatriz Encinas bere seme Alberto eta

Oswaldo eta alaba Verónicarekin, Buenos Aires probintzian bizi ziren, San Fernandon, kapitalean. Argentinan bizi zuten egoera ekonomiko txarrak bultzatuta hartu zuten handik alde egiteko erabakia. Urruneko senitarteko batzuk zituzten Soralezten eta hori izan zen hona etortzeko arrazoia.

1991.urtean Javier eta bere ama etorri ziren, eta handik 3 bat hilabetera, andrea eta 3 seme-alabak.

Joan zen urteko irailan 6xan bueltatu ziren lehen aldiz Argentinara, aita, ama eta alaba. Orain gutxi, Antonella lehen-gusina eta izeba Maria Rosa ere etorri zaizkie bisitan.

Tristura handia sentitzen dute euren familiengatik. “Egoeria okertu egin da eta oindio igual gehixao be okertuko da, pesuan debaluzinuagaittik gehixen bat”.

Argentinatik etorri nahi duten seni-

“Ez da justua oin pegak jartzia hona etorri nahi dabeneri.”

tartekoei ere lagundu nahian dihardute, baina ez omen da gauza erreza, “Gure aurretikuak Argentinara jua zianian, ez zotsen inori pegarik ipini han gelditzeko. Ez da justua oin mugak ipintzia hona etorri nahi dabeneri, biharra dakelako datoz, lehen hemendik jua ziranen moduan”.

Politikoeak dute Yolandaren ustez, gertatzen ari denaren erru nagusia; “ahal izan dabenean euren dako hartu dabe, eta horregaittik gare oin garen moduan”. Era berean Gobernuak hartu dituen neurrien eraginkortasunari ere nahiko zalantzakoa deritzo; “gauzak asko aldatu biharra dira egoera hau konpontzeko edo normalizatzeko, eta hau ez da epe motzian pasatuko”.

Tello familia oso gustora bizi dira Soralezten eta Soralezetar denei asko eskertzen diete herrian horren ondo hartu izana.

Soraluzetik Rosariora bakarrik

Felix Larrañaga, 1.951ko urtarrilaren 1ean Soralezten irten eta urtarrilaren 20an heldu zen Argentinara. Bakar bakarrik joan zen.

Gerra denbora gogorra pasatu zuten Soralezten. Abertzaleak eta batez ere antifrakistak zirelako, jende askok Frantziara ihes egin behar izan zuen, tartean berak ere bai. Argentinara joan zenean; “Plaentxian falta jatan guzti hori hemen topatu neban. Lana eta dirua baino gehixago lasaitasuna. Baina hori bai, sekula ez dot Plaentxia ahaztu. Oso gogorra da ama eta senidiak hain urrin lagatzia.”

1.951ko apirilaren 18an Zazpirak Bat euskal etxean eman zuen izena. “Neretako Zazpirak Bat, nere bigarren etxia moduakua izan da. Etorri nintzianian ez neban inor ezagutzen eta hemen topatu nittuan euskaldun eta Plaentxiar asko; Alejandro eta Pedro Laskurain, Joseba Astigarraga, Aranberritarrak, Artolazabaltarrak..”. Urte askoan Zazpirak Bateko presidente izan eta orain Zazpirak Bateko “Presidente Honorifikoa” da.

Felix Argentinan batekin ezkondu



Francisco Javier Tello eta Yolanda Beatriz Encinas seme eta hango senideekin.

ITUR iturgintza

**Iturgintza, Gasa
Berogailuak
Sukaldeak eta Bañuak**



Santa Ana, 20 Behea
Telefonoa: 943 75 12 41
Sakeleko telefonoa: 639 17 96 96



BELARROK
LORADENDA ETA BELARDENDA
EROSKETAK ETXERA DARAMATZAGU

Santa Ana, 2 bajo
Teléfono 943 - 75 30 11
Móvil 646 43 90 40
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)





Felix Larrañaga bere seme, andre eta amarekin Arantzazun.

“Neretako Zazpirak Bat, bigarren etxian modukua izan da.”

zen eta 42 urteko seme bat dauka. 69an bueltatu zen lehenengo aldiz eta 2.001eko abuztuan azkenengoz.” Abuztuan Zazpiak Bateko ordezkari moduan etorri ginan eta Ibarretxerekin elkarriketatu eta hemengo egoeria azaldu zotsaun, zer zetorren... eta orduan esandakua bete egin da, ze momentu honetan oso egoera txarra bizi dogu. Momentu honetan gobernuan darenak, mafioso batzuk dira, Menenekin gobernuan egon ziranak. Menenek dana saldu zeban, kanpotik enpresa haundixak sartu ziran; Telefonica, Repsol, IPF, BBVA eta horrek dirua etara besterik ez dabe egin. Inflazio izugarria dator, medikamenturik ez dago eta gaixuen egoeria oso grabia da”.

Felixek, Eibar izena daukan neumatiko fabrika bat dauka. Etorkizun hurbila beltz ikusten du eta ez daki bere enpresak aurrera egiterik izango duen “baina tira jateko beste etarako dogu nunbaitetik”.

Familia osoa Buenos Airesera
Mirenen familia 1.950 an joan zen

Argentinara, Buenos Airesera. Mirenen aitak Eibarko “Agirre eta Aldazabal” lantegian lan egiten zuen kazagin (eskopeten kulatagile) moduan. Argentin lan egiteko eskeintza bat jaso zeban, bi urteko kontratu bat eta familixa dana jua ginan. Gure aittak nahi zeban guretako bizimodu on bat eta bertan geratzia erabaki zeban”.

Miren, Bizkaiko Arteagakoa zen Jon Zugadirekin ezkondu zen eta bi alaba eta seme bat izan zittuzten. Senarrak inprimategi bat dauka eta bertan lan egiten dute seme eta alaba batek. Orain, Argentinak bizi duen egoerakin arazoak daukate; “hortxe gabiz borrokan, inprentarekin. Oso batuta gare familixan eta ahalegin haundixakin baina aurrera urtengo dogun esperantzia daukagu”.

Manifestazioak euren etxe aurretik pasatzen dira. “Jentia oso bero dago. Gu istilutan sartu barik, lan egin eta aurrera egiten ahalegintzen gara”. Mirenek ere egoera honetara heltzearen zergaitia gobernuen lan kaxkarrean dagoela uste du baina dagoeneko ez du kontu horietaz berba egiteko gogorik ere.

Buenos Airesgo “Laurak Bat” Euskal Etxean hartzen dute aterpe. “Euskaldunok oso batuta gare eta horrek asko laisitzen gaitu”. Harreman handia mantentzen dute hemengo senide eta lagune-



Miren Loiola, bere alaba eta Begoña Txurrukaren artean.

“Esan zoztan ia zer egin leikian guregaittik. Eskatzeko nahi nebana.”

kin ere. Soralezko lagun batek orainde la gutxi deitu dio; “esan zoztan ia zer egin leikian guregaittik, eskatzeko nahi nebana. Horrek asko asko poztu ninduan”. Miren eta bere familia sarritan etorri dira Euskal Herrira “70ian etorri ginan lehenengo aldiz. Akordatzen naiz Gila Zubixan dardaraz hasi nintzala eta senarrari heltzeko eskatu bihar izan notxala”. Azkenengoz 95 ean izan ziren.

Oraingoz ez dute Argentina uzteko inolako asmorik baina egoera baretzen denean papalak behar bezala jartzeko asmoa dute, badaezpada. Umorez egiten digu gonbitea Mirenek; “Orain zeueri egiten dotsue diruak on, gu fastidixatzen gaituzte baina... etorri nahi dozuenian gure etxeko atiak zabalik daukazue”.

Argentinak gure senideak hartu zituen bezela, Euskal Herriak ordain berbera zor die argentinare, batez ere, hemendik joan zirenei, eta Argentinatik gure kulturari eta herriari horrenbeste lagundu dioten horiei. **Pil Pilean**

Egoitz Unamuno

Telefonia 75 24 09

ARRANO

tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

etxebarri®
etxehun

Barra kargadore automatikoak eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5
Tfnoa 943 75 18 91
Faxa 943 75 24 58
E - maila: etxehun@teleline.es
etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE
Gipuzkoa

Santa Ageda bezperan koplakantari



Soraluzen urte askoan galduta izan den ohitura zahar honek indarra hartu du eta urtetik urtera osasun hobea dauka. Aurten 3 taldek irten dute koplakantari Santa Ageda bezperan.

Musika Eskolakoak

Musika Eskolako ikasleen taldeak otsailaren 4an irten zuen herriko kaleetan zehar. Santa Ana kaletik irtenda, herriari buelta eman zioten, instrumentuz eta neska mutikoen ahotsez Soraluzetarrak gozatu araziz.

Bertso Eskolakoak

Ibililixan Ibilixaneko Bertso Eskolako ikasleak ere otsailaren 4an atera ziren. Makila handi batzuk eskuetan hartuta eta aho soinu joaz, herriko taberna eta zenbait denda pasatu zittuzten, "bertso eskolako irteerak ordaintzeko" limosna pixkat batu nahian.

Baserrietako taldea

14 Bat lagunek irten dute aurten Santa Eskean baserrietara. Ostiral iluntzean San Andresko soziedadetik kalera arteko baserriak pasatu zituzten

eta gauean kaleko tabernak ere bai. Zapatuan Ezozi eta Txurruka auzoetako baserri batzutan jardun zuten. Aurten batutako dirua, "baserritarreri erregalo batzuk egiteko erabiliko dogu eta hemendik aurrera ondo pentsatuko dogu dirua zela gastatu".

Hona hemen egun bietan zehar "komodin" modura, baserrietan gehientxo kantatu zituzten koplak:

Santa Ageda bezpera ez da baina ez da asko falta, kantu kantari gaur urten dogu lotsak etxian lagata.

Barrutik sillak etara eta trankil exeri zaittezte, gaur hemen koplak izango dira zeruan izarrak beste.

Eskerrikasko limosnagaitik eskerrikasko señoira, danok elkarri lagundu ezik hemen ez goiaz inora.

Udala eta Badiharduguren arteko hitzarmena

Soraluzeko Udalak, hitzarmen bat sinatu berri du herri hizkerak mantendu eta indartzearen alde lanean diharduen Badihardugu euskara elkartearekin. Hitzarmen honen arabera, Badiharduguk etorkizunean egingo dituen ekimenak Soraluzera zabaltzeko konpromisoa hartzen du eta Udalak biztanleko 5 pezetako dirulaguntza bat ematekoa. Guztira 25.000 pezeta inguru.

Karakaten eolikoak jartzeko proiektua baztertua



Eusko Jaurlaritzak atzera bota du Hirukurutzeta-Karakate mendilerroan parke eoliko bat jartzeko zegoen asmoa. Azkoitia, Elgoibar, Bergara eta Soraluzeko talde ekologista eta Udalek parke eolikoaren proiektuaren aurrean azaldutako kontrako jarrerak eta honen instalazioa ez egiteko aurkeztutako arrazoiak bultzatu dute Jaurlaritzak erabaki hau hartzea. Proiektua atzera botatzeko arrazoirik nagusiena, aztarna megolikoak izatearena izan omen da. Udala eta Mendi Gainak Ikutu Bez taldea gustora azaldu dira erabakiarekin. Hala ere, ez da onartu Udalak Karakateko ingurua Babestutako Biotopo izendatzeko eskaria.



Kiru Muntaiak

Blas Elizburu Kortabarria
Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20

Goizeko 6:30-etatik
aurrera zabalik!!
Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!



Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34

Eskia**Edurne Espainiako txapeldun**

Joan den otsailak 3 eta 9 artean La Molina, Lérida-n ospatutako estatu mailako eski txapelketetan Edurne Unamuno soraluzetarrak 2 garaipen lortu zituen, lehena jaitsieran eta bigarrena erraldoian. Hirugarren batean ere parte hartu zuen baina ez zuen bukatzerik izan jausi egin zen eta.

Edurnek bizpairu urte daramatza eskiatzen baina konpetizio ofizialetan aurtuen hasi da eta emaitza ezin hobeak lortu ditu. Gure kirolari gazte hau ez dago inungo talde profesionaletan sartuta eta konpetizio ofizialetara Kemen elbarrituen asoziazioarekin joaten da. Entrenamenduak bere kontu egiten ditu aste bukaerero edo ahal izaten duenean behintzat Astun aldean.

Materialari dagokionez Edurnek lau



eskidun ahulki bat erabiltzen du eta eskuetarako estabildo deritzoten makila batzuk erabiltzen ditu. Estabilluak muleta antzerako batzuk dira eta puntan eski txikitxo batzuk ditu elurretan irristatu ahal izateko. Materialaren berezitasun hauek direla eta Edurnek esan digu oso garestiak direla. Zorionak!

Judoa**Cristina Euskadiko Txapeldun**

Azken txapelketetan Cristinak emaitza onak lortu ditu ohiturari jarraituz. Hondarribin ospaturiko Gipuzkoako txapelketan garaipena lortu zuen eta geroago ospaturiko Gazteizko Euskadiko txapelketan ere garaipena lortu zuen. Cristina sasoi ezin hobean dago eta bi aste barru ospatuko den Espainiako txapelketan esperantza guztiak jarrita ditu.

Futbola**Emaitza onak azken partiduetan**

Erregionalak bi partidu jarraian irabazi ditu eta nahiz eta jaitsiera postuetan jarraitu salbaziotik puntu batera aurkitzen da. Azken partidua Zestoan jokatu zuten eta garaipen oso garrantzitsua lortu zuten (denboraldian etxetik kanpo lortu duten lehen garaipena.) Partidua gogorra izan zen baina nagusiek 2 eta 3-ko emaitzaz partidua irabaztea lortu zuten.

Jubenileei dagokionez beren sailkapenerako garrantzitsua den garaipen bat lortu dute pasa den astebukeraren. Partidua Ezozin jokatu zuten Luberriren aurka eta 3 eta 0-eko emaitza lortu zuten. Lorturiko 3 puntu hauek lasaitasun pixkat emango die jubenilei hauek ere atzeko postuetatik irtetzeko puntu premian bait daude.

Kadeteak kopa txapelketan murgildurik daude; ligan erdikaldean bukatu ostean kopa txapelketa ezin hobeto hasi dira eta beraien ligan buru daude. Azken aste hontan karnabalak izan direla eta deskantsua izan dute.

Pilota**Hasi da Deba arroko txapelketa****Llodio txapelketa**

Txapelketa honetan Erlei hasi zen jokatzeko, baina lesio bat izan eta gero 15 egunetan gelditu egon behar izan du. Bere ordezkariak eta finalerdiak Antton Alberdik jokatu ditu. Finalean Azaguirre-ek eta Antton-ek Bengoetxea eta Lagos-en aurka 22 eta 8 galdu zuten. Finalean partiduen garrantzia handia zela eta Antton urduri ibili zen baina hala ere papel bikaina egin zuen.

Zaramaga-ko Txapelketa

Gazteizen ospatzen den txapelketa hontan Arrietak partidu bat jokatu du eta garaipena lortu du Aranzetarekin batera Trapero eta Gonzalez errioxarren aurka. Partidua 22 eta 16 irabazi zuten.

Deba Arroko Txapelketa Kadete maila

Aitor Atxotegik bi partidu jokatu ditu eta biak galdu ditu, lehena Itziarren aurka eta bigarrena Elgoibarren aurka.

Gazte maila.

Txurruka, Azaguirre eta Alberdik parte hartzen dute Soraluzetik. Bi partidu irabazi dituzte eta bat galdu. Itziar eta Eibarren aurka irabazi egin zuten eta Elgoibarren aurka galdu.

Nagusi maila

Arrietak partidu bat galdu eta beste bat irabazi egin du.

Muguruzak Txapelketa hontan Elgoibarrekin hartzen du parte eta Itziar eta Elgetaren aurka irabazi egin du eta Eibarren aurka galdu. **Xuban Katalan**

Limpiezas
Trejo, S.L.

Rekalde, 30 behea
Tel.: 943 75 25 57
Faxa: 943 75 25 56
20.590 SORALUZE

Limpiezas
industiales

IÑAKI
IÑARRA

HARATEGI ETA
URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

Gonzalo Lozano

"Ez dira inoiz gure arbasoak ahaztu behar"

Kaleetan ez dago jada koko-jantzirik. Herriak bere horretan jarraitzen du, San Blas opilen anis zaporea eta karnabaletako biharamuna lagun, denboraren errotan. Ez da jende larregi ikusten plazan, baina lau ezezko borobilen ondoren Gonzalo Lozano agertu zaigu gurekin solasean aritzeko gertu.

-Izen abizenak

Gonzalo Solano 54 urte.

-Zaletasunak

Orokorrean kirol guztiak, baina bereziki futbola.

-Kolorea

Berdea.

-Arropa

Bakeroa.

-Jatetxe batean eskatuko zenukeen afari aproposa

Lehenengo platera: bariatua, gauza ezberdinak; gero legatza edo txuletia eta ganean fruta, ez naiz oso gozozalea eta. Dena dela nik aurrean dudan guztia jaten dut, ematen didatena jan eta kitto.

-Abesti bat

Musika orokorrean dena, flamenkua... eta musika euskalduna ere bai.

-Toki bat

Karakate

-Egun bateko plan ona

Txango bat egitea Donostia edo Getariara.

-Zerk ematen dizu inbiria

Ni ez naiz batere inbiriosua.

-Karnabalak...

Ni ez naiz jantzten, ez zait gustatzen. Besteak koko jantzita ikustea bai. Gustura egoten naiz besteei begira.

-Aholkuak eman ala jaso

Aukeran jasotzea hobe.

-Noiz, nora, zeinekin

Edozein momentutan, etorkizun hobera nere gogoko pertsona batekin

-Ez da inoiz ahaztu behar

Ez dira inoiz gure arbasoak ahaztu behar ez eta norberaren askatasunaren garrantzia ere.

Bertso Begiz

*Hogeitamabost urte damazki
Gonzalok gure artean,
jendearekin ondo konponduz
Eta gozatuz bakean.
Arbasoen odola.
Domeketan futbola
Ta loterian nahi gola.
Guri inbidia sortzeko aina
Bada bizitzea hola.*

*(Doinua: Iparragirre abila...)
Etxebarri*



Gonzalo Lozano

"Orain dela 35 urte etorri nintzen Soraluze 17 urterekin"

-Saiatzen zara...

Bakean bizi izaten eta jendearekin ondo konpontzen saiatzen naiz.

-Hiru desio

Loteria tokatzen, lana izatea eta osasuna.

-Eguneko momenturik onena

Lanetik etorri eta bazkaltzeko ordua.

-Bereziki gogoratzen duzun eguna

Orain dela 35 urte etorri nintzen Soraluzera 17 urterekin. Ez dut ahaztuko sa-soi hura, aldaketa handia izan zen niretzat. Baina bai han eta bai hemen oso gustura. Azkenean ohitu egiten zara.

Gururu

Juan Mari Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak



Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69

ESOZIA

Erretegi
Jatetxea

Bº Esozia, s/n. - Tel. 751001 - SORALUZE

SORALUZE KARNABALETAN



1) Mendatako atarixan Saturday Nighteko animatzaile kuadrila. 2)Unamuno, Ugalde eta Salaberria konpainia one-an.3)Piraten taldea, gaztetxuendako mozorro lehiaketako txapeldun haundiak. 4) No Coment!!!! 5) Blas Wayne eta bere kwatererua gabeko ganadua zaintzen. 6) Jubilatut martxosoak, zela dantza egin bihar da erakusten.





MAPPFRE
MAPPFRE SORALUZE

JUAN LUIS IBARZABAL ARRIETA
JULIA IBARZABAL ARRIETA

Gabolats, 5 b
Tel.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Eskuko telefonoa: 649 49 79 59 Faxa: 943 75 16 10
20.590 SORALUZE




Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze
Telefonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

Argazki zaharra



Ez zebe ez pelaje honekin bedar askorik zapalduko. 82xan laga zotsen behintzat Ipuruan argazkixa etaraten, aldame-neko anexo gogorrera jokatzera juan aurretik. Mundialistak ez ziran izan, baiña borondate ona zeuken.

Belauniko(ezkerretik eskumara): Aitor Rodriguez, Jabi Crespo, Gorka Arrillaga, Gorka Zubiaurre, Manuel Trejo. Tente: Txiki Nuñez, Jose Luque, Asier Laskurain, Pedro Cacho, Rafa Idigoras, Errasti, Aitor Palacín.

Jon Basauri

“Eta Literaturaz?” Lehiaketa

Izenburua:
Baina bihotzak dio
Egilea:
Xabier Montoia
Bilduma:
Literatura 217
Data:
2002ko otsaila

XABIER MONTOIA musikari eta idazle gasteiztar-
 rrak euskal poesiari berri-
 u edar eman zion
 80ko hamarkadako literaturari.


Oraingo honetan, “Baina bihotzak dio”n
 Herrialdez herrialde mugituko gara liburuan
 zehar, eta harrituta gera gaitezke nolako zehaz-
 tasun eta sinesgarritasunez dauden eraikiak pla-
 netako zokorik urrunenetan kokaturiko istorio-

ak. Harrigarriagoa da, hala ere, giza geografian
 barrena egindako bidaia: Londresa au-pair doan
 ezpeletarra, Indian neba jonkiaren bila dabilen
 laudioarra, K-2ra igo nahi duen mendizale nafa-
 rra, Afrikako portu batean dagoen marinel biz-
 kaitarra...


Zer dio zure bihotzak?

Deitu 943 75 13 04 telefonora
 “Baina bihotzak dio”ren bi ale
 dituzu zain.

Aurreko lehiaketako irabazlea:
Ander Epelde (Lagun Izoztua)



Mendata taberna



Berezitasunak:
Txipiroiak, Barazki
Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater konbi-
natuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)
 Kalebarren, 5
 Tfnoa 943 75 13 87

ELIZpE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
 9 4 3 7 5 2 5 6 7
 20590 Soraluze

Martxuaren 8xan Sagardotegira

Otsuenea Sagardotegian
Bergarako Jardun elkartearekin batera

TXOTX!!!



Irteera: 19:30etan Gilan. Buelta: 3:00etan.
Menua: Bakailau tortilia, bakailaua, txulela, gaztaia.
Prezioa: 26 € bazkideak. 29€ gainontzekoak
Eguna: Otsailan 28xan
Izena emateko: Gila, Arrano, Gaztelupe.



**HNOS. BENITO
ANAIAK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK


Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



TXURRUKA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE



Electricidad LAU, C.B.


Montajeak-Instalazio Industrialak-Bobi-
natuak-Automatismoak-Konponketak

Olea auzoa 3.behea
Tel: 751234

20950 SORALUZE


Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:




kutxa

zuri esker
gracias a ti



Instalaciones Kalebarren S.L.



Gas instalakuntzak eta proiektuak
Kalefakzioa eta aire egokitua
Iturgintza orokorrean

20590 SORALUZE Tel. / Faxe: 943 75 23 07 Eskuko tel.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU Tel.: 944 75 99 60 Posta elektronikoa: kalebarren@inicia.es



Peugeot 307. Ez da zenbaki bat bakarrik
2002 urteko autoa da Europan



Ze puntutaraino izan dezakezu konfidantza auto batekin? Punturik goreneneraino. Batu eta irabazi egin dugu. 6 Airbag (aurreko inteligente 2, alboko bi eta kortina moduko sabaiko bi, aurreko eta atzeko bidaiariendako) eta ABSez gainera, zure eskura jartzen ditugu segurtasuneko elementurik aurreratuenak:

EVA (larritasunezko frenatuendako laguntza), REF (frenatuaren banaketa elektronikoa), ECS (garondoko lesioen aurkako babes sistema), oiñ-jartzeko aktiboa,

Norabide habe atzeragarria eta ESP (orekaren kontrol dinamikoa). Xehetasun eta kontrol osoa.

ETORMOBIL

Otaola etorbidea 22

Tel.: 943 20 09 66

EIBAR

